

ALOÑAKO IGOERA MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Bildurik

Alde Batetik, **IZARO ELORZA ARREGUI** andrea, NAN zenbakia 72455568-W, Oñatiko Foruen enparantza 1 zenbakian lan egiten duena, Alkate izanik Udal Korporazioaren izenean.

Bestetik, **PABLO AREJOLALEIBA UGARTE** jauna, NAN zenbakia 15388095Z Oñatiko San Martin auzoa 14-Behea An bizi dena, “Aloñako Igoera” kirol elkartearen izenean (aurrerantzean “antolatzailea”).

Azaltzen dute

I.- Antolatzailea, azken urteetan, lan oparoa egiten ari da Oñatin kirolaren alde. Horrela, “Aloñako Igoera” kirol probak leku berezia du lurraldeko mendi-lasterketen txapelketa egitarauan, bai horretan parte hartzen duten kirolari kopuruagatik, bai lasterketaren ibilbideagatik eta antolakuntzaren kalitateagatik ere.

II.- Oñatiko Udalak eta antolatzaileak elkarrizketak izan dituzte, “Aloñako Igoera” mendi-lasterketaren antolaketa bermatzeko eta bi aldeen arteko lankidetzak adosteko.

III.- Euskadiko Kirolaren legeak 2.1 artikuluan dio (14/1998 Legea, Ekainaren 11koa) kirola pertsonen garapen integralari eta formazioari eta norbanakoaren zein gizartearen ongizate eta bizi kalitatearen hobekuntzari laguntzen dion jarduera soziala dela; 2.3 artikuluan dio herri aginteei eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dutela, kirol asoziazionismoa antolatuz eta sustatuz nahiz kirolgintzako antolamendu pribatuen egiturak aintzat hartuz eta babestuz, kirol arloan Administrazioen eta federazioen edo/eta beste edozein kirol erakunderen arteko kolaborazioaz.

IV.- Oñati turismo ikuspuntutik Oñatiko turismo eredu jasangarrienetakoa da Arrikrutz-Oñatiko Koba proiektua eta eredu hori kontutan izanda udalerriko kirolaren eta kulturaren balioak positiboki eta era jasangarrian bultzatu nahi dituzte entitateek .

Antolatzaileak mendi-lasterketak sustatu nahi ditu 11.450 biztanle dituen herrian.

V.- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikuluan eta Oñatiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera (itunpeko diru-laguntzak), diru-laguntza ematea lankidetzak-hitzarmen bidez egin daiteke baldin eta diruz lagundu beharreko ekintzak izaera berezia badu.

VI.- Indarrean dagoen Toki-araubidearen legedian eta kirol legedian zein Diru-laguntzen Legean, erakunde pribatuekin lankidetzak hitzarmenak egiteko figura aurreikusten da, giza intereseko jarduerak sustatzeko xedearekin.

VII.- Hori guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau

Hitzartzen dute

1.-Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua da: 2023 urterako Oñatiko Udalaren eta antolatzailearen arteko lankidetzaren eredu ezartzea "Aloñako Igoera" mendi lasterketa antolatzeke, bai diru-laguntzari dagokionez eta baita bi aldeek arteko harremanari dagokionez ere, betiere Oñatiko kirol jarduerak bultzatu eta bermatu, eta turismo aktiboa eta jasangarria bultzatzeko xedearekin.

2.-Datuen babesa:

Aurreko atalen arabera, Estatuko Administrazio Orokorreko Kontu-hartzailetzari egin beharreko datu pertsonalen lagapena dagokionaren baimenik gabe egingo da.

3.-Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honen iraupena bi urtetakoa izango da, eta beste bi urtez, urtez-urte, luzagarria izango bi entitateek lankidetzarekin aurrera egitea adosten badute.

4.-Diru-laguntzak

4.1. Kirol ekintzak antolatzeke ohiko dirulaguntzak

Oñatiko Udalak, urtero, 2.750 €-ko diru-laguntza emango dio antolatzaileari kirol ekintza hauek antolatzen laguntzeko:

- a. Aloñako Igoera mendi-lasterketa
- b. "Aloña Txiki" lasterketa

Aipaturiko ekintzen formatua eta ezaugarriak (nori zuzendua dagoen, ibilbideak, egunak eta ordutegiak, eta abar.) aldatu ahal izango ditu antolatzaileak, betiere Udal kirol zerbitzuarekin adostuta. Antolatzaileak aldaketa horien berri emango dio Udalari, ekintzen zehaztapena eta programa ematen dionean.

4.2. Oñatiko ondare naturalaren balioen komunikazioan laguntzeagaitik dirulaguntza

Arrikutz-Oñatiko Koba Aloñako Igoerako kirol-probako topaleku bezala erabiltzea; besteak beste, deabru maskotaren etxea, sare sozialetan edota informazio banatzean Arrikutz-Oñatiko Koba aipatzea ondare eta natura balioak modu jasangarriaren erreferentzia-lekua bezala. Komunikazioan estrategia anitzak abian jartzeagaitik laguntzeko 3.000 €-tako dirulaguntza.

4.3. Kirol ekintzen antolaketan sortutako egoera bereziak

Kirol ekintzen antolaketan behar bereziren bat sortuko balitz hitzarmenaren jarraipenerako aurreikusitako egituraren baitan adostuko da, eta hala badagokio, baita behar jakin horri aurre egiteko dirulaguntza kopurua ere. Udalak kirol proben antolaketarako dirulaguntza bertan behera utzi dezake, edota bestelako aldaketak agindu ditzake, baldin eta horien baldintzak eta ezaugarriak hitzarmen honetan eta antolatzaileak aurkeztu behar duen kirol ekintzen programan jasotzen ez direnak direla baloratzen badu, edota bestelako egoera berezi bat medio delarik.

Zerrenda honetatik kanpo geldituko dira nolanahi ere herriko beste hainbat taldek edo elkartek antolatzen dituzten jarduerak.

4.3. Dirulaguntzen ordainketa

4.1, 4.2 eta 4.3. puntuetako diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira: urteko lehen lauhilekoan %60a, eta Udalak ekintzaren memoria eta frogagiriak onartutakoan, bigarren zatia, alegia; %40a.

2023rako bost mila zazpiehun eta berrogei eta hamar euroko (5.750 €) gastua baimentzen da. Aipaturiko gastua Udal aurrekontu orokorretako honako gastu partidetatik ordainduko da:

- 1070048134100042023 (283): Partida honetatik 2.750 € ordainduko dira.
- 1 1000.480.432.01.01 2023 (5305): Partida honetatik 3.000 € ordainduko dira.

5.-Eskola-umeei zuzenduriko kirol ekintzak

5.1. Antolatzaileak eskola-umeei zuzenduriko kirol ekintzaren bat antolatzen badu, Eskola Kirola programaren barruan antolatuko jarduerak kontuan izanik egingo du, bi jarduerak bat egin ez dezaten, eta bateragarriak izan daitezen.

5.2. Antolatzaileak eskola-umeei zuzenduriko kirol ekintzaren bat antolatzen badu, kirol modalitate horren lurraldeko federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko araudiak, edota eskumen arautzailea duten bestelako erakundeek zehazten dituzten gomendio, irizpide eta araudiak bete behar ditu.

6.-Antolatzailearen betebeharrak

Antolatzaileak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutakoez gain, konpromiso hauek hartzen ditu Oñatiko Udalarekin:

6.1.- Antolatzaileak erantzukizun osoa izango du kirol proben antolaketan eta horien garapenean gerta daitezkeen ezbehar, istripu eta bestelako gertakizunen aurrean, bai Udalarekiko eta baita hirugarren pertsonetik ere, pertsona fisiko zein juridikoa izan, izaera publikoa zein pribatua izan. Antolatzaileak kirol probari dagokion erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuko du.

Antolatzaileak Oñatiko Udalaren Kirol Batzordean parte hartuko du batzordeak berak eskatzen badio.

6.2.- Antolatzaileak ekintzen txosten bat entregatuko dio Oñatiko Udalari, egindako ekintzen, lortutako emaitzen eta elkarrearen egoeraren berri emateko.

Aurreikusitako xedeak bete izana egiaztatu beharko du antolatzaileak, ondorengo dokumentazioaren bidez:

a.- Diru-laguntzak ematerakoan jarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen jarduera-txostena. Txostenean, gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuko dira. Antolatzaileak Udal kirol zerbitzuan entregatu beharko du txostena, ekintza programa amaitu eta bi hilabetera.

b.- Diru-laguntza partida edo lerro ezberdinetan egindako jardueren kostua, edota izandako gastuak nahiz sarrerak egiaztatuko dituen txosten ekonomikoa, honako hauek jasoz:

- 1.- Gastuen eta inbertsioen zerrenda.
- 2.- Hori egiaztatzen duten fakturak edo egiazttagiriak eta ordainketa egin deneko agiria.
- 3.- Jarduerak finantzatzeko jasotako beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
- 4.- Erabili gabeko soberakinik balego, itzulketako ordainketa-gutuna eta horietatik jasotako interesena.

6.3.- Antolatzailea urteroko diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartua balego edo eta Udalak edo beste Administrazio batek hala eskatuko balio, elkarteak derrigorrez jarri beharko ditu ikuskariaren esku, Diru-laguntzen Lege Orokorren 14.1.f artikulua araberak eska dakizkiokeen liburu, erregistro edo agiri guztiak.

Era berean, Udalak eskatutako egiaztapen jarduketak onartu beharko ditu, eta baita ahalmena duen kontrol-organoaren egiaztapenak eta diru kontrolak ere, eskatzen zaion beste argibide emanez.

6.4. Antolatzaileak, zerga betebeharrak (Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, Udalari hori egiaztatzeko baimena ukatu baldin bazaio edo Nisae nodoaren -euskadiko administrazioen segurtasune- rako eta elkarreragintasunerako nodoa- elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoan kontsulta egin ezin bada, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioei dagokienez egunean dagoela egiaztatu behar du.

Oñatiko Udalak, Nisae nodoaren bidez -euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa-, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu antolatzaileek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horrez gain, dirulaguntza hauen tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez di- tuen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edo- zein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Oñatiko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako diru-laguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Estatuaren Administrazio Orokorra. Zerga Administrazioako Estatu Agentzia (AEAT): zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsultatzeko zerbitzua.
-

Goian zerrendatutako erakundeetatik kanpo ordaintzen dituztenek kasuan kasuko Ogasunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Estatuaren Administrazio Orokorra. Gizarte Segurantzaren. Diruzaintza Nagusia (GSDN): GSDNarekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Oñatiko Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko bete- beharrak betetzen direla.

Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Nagusiaren bi-dez egiaztatuko ditu ondorengo ziurtagiri publikoak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoelako egiaztagiria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden erakundeek kasuan kasuko erregistroak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden erakundeek estatutuak aurkeztu beharko dituzte.

Aipatu egiaztagiria baliadunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo sei hilabeteetan. Dirulaguntza jasotzen duen kontzeptu bakoitza benetan ordaintzen den unean egiaztagiria eman zen egunetik sei hilabete igarota egonez gero, or- gano emaileak zuzenean eskuratuko du ziurtagiri berria edo bai- mena eman ez duten entitate onuradunek berriro aurkeztu be- harko dituzte egunean daudelako egiaztagiria.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo har- tarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio entitate eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Eskariak aurkezteak, hitzarmen honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

6.5. Antolatzaileak, hitzarmena izenpetu aurretik, legeak agintzen dituen eta dagozkion erantzukizun zibileko aseguruaren polizak egiaztatuko ditu.

6.6. Antolatzaileak, antolatzen dituen kirol proba guztietan, istripuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko du: 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak arautzekoa; eta 277/2010 dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko.

Udalak beharrezko diren dokumentuak eta ziurtagiriak eskatuko dizkio antolatzaileari, hala nola kirol proben larrialdi planak, eta zehaztutako epeetan aurkeztu beharko ditu.

6.7. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, 1994. urtean Udalarekin sinatutako *Euskaraz baietz!* Hitzarmenean antolatzaileak hartutako hizkuntza konpromisoak kontuan hartuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirolletako lan mahaiak kirol elkarteak diruz laguntzerakoan Udalek hizkuntza irizpideak kontuan hartzeko egindako proposamenarekin bat eginez, antolatzaileak hizkuntza konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan:

- Antolatzaileak herriko haur eta gazteentzat antolatzen dituen jarduera guztietan, euskara erabiliko da ahoz nahiz idatziz.

- Antolatzaileak jendaurrean antolatzen dituen txapelketa, kirol-ekitaldi, jaialdi eta antzekoetan, euskara erabiltzea ziurtatuko da.
- Bazkideei eta kirolariei helarazten zaizkien gutun, barne zirkular eta antzekoetan, euskara erabiliko da.
- Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

7.- Udalaren eskumenak.

Udalaren eskumenena da: hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege ezarritako mugen baitan eta betiere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta (apirilaren 18ko, 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 114. artikulua).

Horri buruz hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat-batean bihurtuko dira betearazle.

8.-Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordea

Hitzarmen honen helburuak modu egokian bete daitezen, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Pertsona hauek osatuko dute: Oñatiko alkateak edo honek ordezkaturako zinegotziren batek; Oñatiko Udaleko Kirol Batzordeko presidentek edo honek ordezkaturako zinegotziren batek; Oñatiko Udaleko Kirol Teknikariak; antolatzaileak edo honek ordezkaturako norbaitek.

Hitzarmena sinatzen duten alde bietako batek hala eskatuta, beste pertsona batzuk ere joan ahal izango dira Jarraipen Batzordeko bileretara, gai-zerrendan dagoen gairen baten gainean iritzi tekniko edo profesionala emateko.

Jarraipen Batzordea urtean gutxienez behin bilduko da; bi aldeek adosten duten egunean.

Halaber, bi aldeetako batek Jarraipen Batzordeak bilera egitea eskatzen badu, bilera eskatu denetik hamabost egun igaro baino lehen egingo da bilera hori.

9.-Hitzarmena desegitea

.- Antolatzaileak hitzarmen honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, Udalak hitzarmena bertan behera utz dezake, eta Elkartek Udaletik jasotako diru-laguntza itzuli beharko du.

Hitzarmenaren klausulak bana-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartzen. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, hasieran adierazitako toki eta egunez sinatzen dute Hitzarmen hau, Oñatin 2023ko martxoaren 6an.

Oñatiko Udalaren izenean:

Antolatzailea:

Izaro Elorza Arregui

Pablo Arejolaleiba Ugarte



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	ALOÑA IGOERA, LANKIDETZA HITZARMENA 2023-2027
CSV/EKS:	SINA469821ca-d74d-4f70-b96e-faa0734e1a8d